## OIARTZUNGO UDALA

*ELI-6 eremuko Xehetasun Azterketaren behin betiko onarpena*

Udal honek, 2010eko uztailaren 29an egindako osoko bilkuran Oiartzungo Planeamenduko Arau Subsidiarioen ELI-6A eremuko «F» lursailari buruzko Xehetasun Azterketa -Ager Iñarra Arrastua arkitektoak idatzitakoa- behin betikoz onartzea erabaki zuen.

2/2006 Legearen 89. artikulua betez, Xehetasun Estudioaren ale bat igorri da Foru Aldundira, hirigintzako plangintzaren erregistro administratiboan sartzeko eta honekin batera argitaratuko dira bertan dauden hirigintzako arauak.

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazio bidea amaitzen du. Nahi izanez gero, administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezake interesatuak Euskadiko Justiziako Auzitegi Nagusiak Bilbon duen Administrazioarekiko Auzietako Salan, erabaki hau argitaratu edo, kasu bada, jakinarazi eta biharamunetik bi hilabeteko epean.

Hala, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsoa aurkezteko Udalari, argitaratu edo, kasua bada, jakinarazi eta biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte.

Oiartzun, 2010eko abuztuaren 17a.—Alkatea. (9837)

ERANSKINA

1. HARTUTAKO SOLUZIOA. JUSTIFIKAZIOA

Lurzatiak 5.251 m²tako benetako azalera dauka, neurketa topografikoaren arabera. Sistema orokorrera destinatua dago, eskola edota eskolaurreko erabilerarako ekipamendu publikora atxikia. Erabilera bakoitzerako berezitako eremuetan zatitzea proposatzen da (5. planoa):

1. F 1: Lurzatiaren mendebaldeko aldea okupatzen du:

— Azalera eskubidea: Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoa.

— Erabilera: Haurreskola.

— Eremuaren azalera: 2.128 m².

— Azalera eraikigarria: 1.300 m² + 150 m² ataria.

— Sabai eraikigarria: 2.000 m² + 150 m² ataria.

— Gehienezko profila: S+PB+2+BC.

— Teilategalera gehienezko altuera: 13 metro.

2. F 2: Lurzatiaren ekialdea okupatzen du:

— Azalera eskubida: Ikastola Haurtzaro.

— Erabilera: Ikastetxea eta haurreskola.

— Eremuaren azalera: 1.545 m².

— Azalera eraikigarria: 700 m² + 150 m² ataria.

— Sabai eraikigarria: 2.000 m² + 150 m² ataria.

— Gehienezko profila: S+PB+2+BC.

— Teilategalera gehienezko altuera: 13 metro.

3. F 3: Lurzatiaren erdiko aldea okupatzen du, 1 eremua eta 2 eremuaren artean eta iparraldean eta hegoaldean kokaturiko bi lurzerrenden artean:

— Erabilera: Espazio libreak, eskola zuzkiduretara atxikituak.

— Eremuaren azalera: 1.577 m².

## AYUNTAMIENTO DE OIARTZUN

*Aprobación definitiva de Estudio de Detalle de ELI-6*

El Ayuntamiento, en sesión plenaria celebrada el 29 de julio de 2010, acordó aprobar definitivamente el Estudio de Detalle de la «parcela F» del «Area ELI-6A» de las Normas Subsidiarias de Planeamiento de Oiartzun, redactado por el arquitecto Ager Iñarra Arrastua.

En cumplimiento del artículo 89 de la Ley 2/2006, se ha remitido un ejemplar del Estudio de Detalle a la Diputación Foral para su inclusión en el registro administrativo del planeamiento urbanístico, publicándose a continuación las normas urbanísticas incluidas en el mismo.

Este acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa, pudiendo interponerse contra el mismo recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en Bilbao en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación o, en su caso su notificación.

Con carácter previo y potestativo los particulares podrán interponer recurso de reposición ante este Ayuntamiento en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación o, en su caso, notificación. En este caso no se podrá interponer el Recurso Contencioso-Administrativo hasta que se resuelva expresamente el de Reposición o se haya producido su desestimación.

Oiartzun, a 17 de agosto de 2010.—El Alcalde. (9837)

ANEXO

1. SOLUCIÓN ADOPTADA. JUSTIFICACIÓN

La parcela tiene una superficie real de 5.251 m² según medición topográfica. Está destinada a sistema general adscrito de equipamiento público para uso escolar y/o prescolar. Se propone la subdivisión de la misma en áreas diferenciadas para cada uno de los usos (plano 5):

1. F 1: Ocupa parte del lado occidental de la parcela:

— Derecho de superficie: Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoa.

— Uso: Prescolar.

— Superficie del area: 2.128 m².

— Superficie edificable: 1.300 m² + 150 m² de porche.

— Techo edificable: 2.000 m² + 150 m² de porche.

— Perfil máximo: S+PB+2+BC.

— Altura máxima alero: 13 metros.

2. F 2: Ocupa la parte oriental de la parcela:

— Derecho de superficie: Ikastola Haurtzaro.

— Uso: Escolar y prescolar.

— Superficie del area: 1.545 m².

— Superficie edificable: 700 m² + 150 m² de porche.

— Techo edificable: 2.000 m² + 150 m² de porche.

— Perfil máximo: S+PB+2+BC.

— Altura máxima alero: 13 metros.

3. F 3: Ocupa la parte central de la parcela entre el área 1 y el área 2 y dos franjas situadas al norte y sur respectivamente:

— Uso: Espacios libres adscritos al equipamiento escolar.

— Superficie del area: 1.577 m².

Loteslea ez den 6. Planoan «AASSen ELI-6A Eremuaren eskema + Haurreskola» F lur-zatiaren irudi figuratibo bat aurkezten da, eraikigarriak diren bi bolumenekin, F1eko eremuari (Haurreskola erabilera) eta F2 eremuari (Haurtzaro Ikastolaren erabilera) dagokienak eta F3 espazio libreetako eremuari dagokiona. Guzti hori barnesartzen da ELI-6A arearentzat Oiartzungo AASSak egiten duten proposamenean, bertan baieztatzen delarik xehetasun azterketaren xedapenen bideragarritasuna.

2. LERROKADURAK, SESTRA ETA ZORTASUAK

Lerrokadurak 3 planoan ezartzen direnak izango dira (lerrokadurak eta bide-zortasuna).

Lurzatiaren mugetan 3 m.koak izango dira mugakideekin, ondorengo puntu hauetan izan ezik:

— Lur-zatiaren hegoaldean, Sibeluts kalearen mugan 4 m.ko gutxieneko tartea ezartzen da.

— Lurzatiaren erdialdean, Ikastolaren itxitura ondoan ekipamenduetara sarrera bat proposatzen da Arau Subsidiariioetan proposaturiko garapen berriko bidetik. 5 m.ko gutxieneko tartea ezartzen da.

— Ibilgailuekin ekipamenduetara sarbidea Sibeluts kaletik, Sagasti-Berri baserriaren lurrekin mugarekin paraleloa. 5 m.ko gutxieneko tartea ezartzen da.

— Lur-zatiaren ekialdeko Ipar inguruan, Haurtzaro ikastolaren jolas eremuarekin mugan, lurtzatiaren mugarekin bat datorren lerrokadura ezartzen da, izan ere bi eremuetako erabilera Ikastolarena da.

Gaur egun dagoen zorbidea lekuz aldatzen da Sibeluts kaletik datorren sarbidearekin bat eginez, eta ikastolarentzat proposatutako oinezkoen bide batekin batera lur-zatia hegoaldetik iparraldera zeharkatzen du, horrela lur-zatiaren iparraldean dauden terrenoetara sarbidea ematen da.

Sestrak 4 planoan ezartzen direnak izango dira. (bideak eta sestrak)

Lur-zatiaren topografia aldapa txikiekin da, punturik baxuena erdialdean dagoelarik (kota 49,80) eta altuena iparekialdean (kota 52). Lurzatiaren hegoaldean, Sibeluts kalea ekialdetik mendebaldera jaisten da %7,5eko aldaparekin, bertan egonik kotarik altuena 51,90, eta baxuena 49,05.

Haurreskolaren eraikinaren behe solairua 50,50 kotan egongo da gutxi gora behera. Behin betiko sestrak urbanizazio proiektuan aztertuko dira.

En el plano no vinculante 6. «AASSen ELI-6A Eremuaren eskema + Haurreskola» se presenta una imagen figurativa de la parcela F con los dos volumenes edificables correspondientes a las zonas F1 (uso Haurreskola) y F2 (uso Ikastola Haurtzaro) y la zona de espacios libres F3 insertados en la propuesta de las NNSS de Oiartzun para el área ELI-6A en el que se comprueba la viabilidad de las determinaciones del estudio de detalle.

2. ALINEACIONES, RASANTES Y SERVIDUMBRES

Las alineaciones serán las que se establecen en el plano 3 (lerrokadurak eta bide-zortasuna).

Serán de 3 m en los límites de la parcela con terrenos colindantes salvo en los siguientes puntos:

— En la zona sur de la parcela, en el límite con Sibeluts Kalea se establece una separación mínima de 4 m.

— En la zona central norte de la parcela, junto al cierre de la Ikastola se propone un futuro acceso a los equipamientos desde el vial del nuevo desarrollo propuesto por las NNSS. Se establece una separación mínima de 5 m.

— Acceso rodado a los equipamientos desde la calle Sibeluts paralelo al límite con el terreno del caserío Sagasti-Berri. Se establece una separación mínima de 5 m.

— En la zona Norte del lado Este de la parcela, en el límite con la zona de juegos de la Ikastola Haurtzaro se establece una alineación que coincide con el límite de la parcela ya que el uso de ambos espacios es de la Ikastola.

La servidumbre de paso existente hoy en día en la parcela se traslada haciendola coincidir con el vial de acceso desde Sibeluts Kalea y que junto con un paso petonal propuesto hasta la ikastola atraviesa la parcela de sur a norte, dando acceso de este modo a los terrenos situados al norte de la parcela.

Las rasantes serán las que se establecen en el plano 4 (bideak eta sestrak)

La parcela tiene una topografía con ligeras pendientes estando el punto más bajo hacia el centro de la misma (cota 49,80) y el más alto en la zona noroeste (cota 52). Al sur de la parcela Sibeluts Kalea desciende de este a oeste con una pendiente del 7,5% estando a la altura de la misma la cota más alta a 51,90 y la más baja a 49,05.

La planta baja del edificio de Haurreskola estará aproximadamente a cota 50,50. Las rasantes definitivas se estudiarán en el proyecto de urbanización.

3. XEHETASUN AZTERKETAREN PARAMETROEN LABURPENA.

| | *AASS* | *XEHETASUN AZTERKETA* | | |
|---|---|---|---|---|
| | | *1 area* | *2 area* | *Guztira* |
| ERABILERA | ESKOLA ETA HAURRESKOLA | HAURRESKOLA | ESKOLA EDOTA HAURRESKOLA | |
| AZALERA ERAIKIGARRIA | 2.000 m$^2$ + 300 m$^2$ (ataria) | 1.300 m$^2$ + 150 m$^2$ (ataria) | 700 m$^2$ + 150 m$^2$ (ataria) | 2.000 m$^2$ + 300 m$^2$ (ataria) |
| SABAI ERAIKIGARRIA | 4.000 m$^2$ + 300 m$^2$ (ataria) | 2.000 m$^2$ + 150 m$^2$ (ataria) | 2.000 m$^2$ + 150 m$^2$ (ataria) | 4.000 m$^2$ + 300 m$^2$ (ataria) |
| GEHIENEZKO PROFILA | S+PB+2+BC. | S+PB+2+BC. | S+PB+2+BC. | |
| GEHIENEZKO ALTUERA TEILATU-HEGALA | 13 m | 13 m | 13 m | |

3. RESUMEN DE PARÁMETROS DEL ESTUDIO DE DETALLE

| | *NNSS* | *ESTUDIO DE DETALLE* | | |
|---|---|---|---|---|
| | | *Area 1* | *Area 2* | *Total* |
| USO | ESCOLAR Y PRESCOLAR | PRESCOLAR | ESCOLAR Y/O PRESCOLAR | |
| SUPERFICIE EDIFICABLE | 2.000 $m^2$ + 300 $m^2$ (porche) | 1.300 $m^2$ + 150 $m^2$ (porche) | 700 $m^2$ + 150 $m^2$ (porche) | 2.000 $m^2$ + 300 $m^2$ (porche) |
| TECHO EDIFICABLE | 4.000 $m^2$ + 300 $m^2$ (porche) | 2.000 $m^2$ + 150 $m^2$ (porche) | 2.000 $m^2$ + 150 $m^2$ (porche) | 4.000 $m^2$ + 300 $m^2$ (porche) |
| PERFIL MÁXIMO | S+PB+2+BC. | S+PB+2+BC. | S+PB+2+BC. | |
| ALTURA MÁXIMA ALERO | 13 m | 13 m | 13 m | |